

opusdei.org

Osasun Tropikaleko Institutuaren memoria

Paul Nguewa Tchinda
zuzendariak Institutuaren
jarduera baloratzen du

2021 Api 12

Nafarroako Unibertsitateak,
Institutuaren bidez, garapen bidean
dauden herrialdeetako gaixotasunak
diagnostikatu, tratatu, prebenitu eta
kontrolatzeko irtenbideak aurkitu
nahi ditu.

2020. urtea oso berezia izan da, dagoeneko ezagunak diren arrazoiengatik. Institutuak kalitatezko ikerketak egiteko erronkarekin jarraitu du. Argitaratutako lanen %78 eragin zientifiko handiko aldizkarietan argitaratu da.

Pandemia erronka zientifiko berria izan da Institutuarentzat, eta hemendik COVID-19 delakoaren aurkako borrokan lagundu nahi dugu. Koronabirusaren aurrean gai izateko Amerikan mila bat osasun-agenteren prestakuntzan aktiboki parte hartu dugu.

Ikasturte honetarako, Institutuaren helburuak hauek dira: diagnostikorako irtenbideak aurkitzea, tratamenduak aurkitzea eta estrategia terapeutikoak prestatzea, Malaria, HIESa eta antzeko gaixotasunak prebenitu eta kontrolatzeko txertoak diseinatzea,

eta prestakuntza ematea. Erronka horiei COVID-19 delakoaren aurkako ikerketak gehitu behar zaizkie.

Txertoak eta tratamenduak lortzea erronka handia da mundu osoan. Nafarroako Unibertsitateak ere, institutuaren bidez, apustu hori egin du. Aldizkari entzutetsuetan argitaratu ditugun emaitza zientifikoak ikusita eta ikertzaileen kalitatea kontuan hartuta, zuzendaritza zuzena dela esango nuke, eta guztion laguntzarekin, gure helburu globalak lortzeko urrats onak emango ditugu.

.....